



TopaGune: AHAL: Parte hartu, nahia eta ezina



Parte hartzeko aukerak eta baldintzak ematea ezinbestekoa da, eta erabat loturik dago parte hartzeko eskaintzen diren denbora, modu eta bitartekoekin. Baldintza eta ezaugarri horietako partaidetzan, nork parte hartu dezake eta nork ez?

Ots. 25 2023

Kod. G02-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ots. 25 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Parte hartzeko aukera eta baldintzak eman behar dira. Prestutasuna bakarrik ez baita nahikoa, eta prestutasuna bera aukera eta baldintzen arabera ere izan daiteke. Parte hartu nahi duen orok ezin baitu parte hartu, ezberdinkeriak lekua duen gizarteetan, bederen ez. Maila ekonomiko eta kulturalak, genero eraikuntzek, esleitutako arrazak, egoera administratiboak, adinak, gaitasun funtzionalek, sexualitateak, bizitokiak, digitalizazio mailak, mugikortasunak, hizkuntza ahalmenak eta abar luzeak eragina dute parte hartzeko baldintzetan. Ahaztu gabe, Partaidetza aukeretan elkarte zein administrazio publikoek eta sistema politikoak proposatzen duten bitarteko, denbora eta moduek ere partaidetza ahalmena handitu edo gutxitu dezaketela. Partaidetza bultzatu eta sustatzeko asmoz, balioan ipini eta aitortzeari begira, hobariak egon behar ote dira? Zeintzuk dira horren arrisku eta indarguneak? Mundu zabalean zein esperientzia daude? Gipuzkoan zein gogoeta egin dira?

Ikastaro hau “Partaidetza aztergai: nahi, ahal, jakin” solasaldi zikloaren bigarren saioa da. Zikloa “Nahi: parte hartu, ala ez parte hartu, hori da gakoa” eta “Jakin: partaidetza-on” saioekin osatzen da.

Helburuak

- Parte hartzea bultzatzeko nola sortu aukerak eta baldintzak: zailtasunak dituzten giza kolektiboei ahotsa eman hauen premiak eta proposamenak entzuteko.
- Zein dira arrakala nagusiak eta nola aurre egin.
- Parte hartu ahal izateko hobari eta modu ezberdinen inguruan hausnartu, aukera eta arriskuak.
- Kanpoko zein bertako esperientzietatik ikasi.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2023-02-25

09:30 - 10:00	Erregistroa eta kafea
10:00 - 10:15	Jardunaldiaren aurkezpena: Mikel Pagola, Itziar Alkorta, Ainhoa Novo, Ion Burgaña
10:15 - 10:30	AHAL, jabetuz girotze dinamika
10:30 - 11:20	Mahai-ingurua: PARTE HARTZEA BULTZATZEKO NOLA SORTU AUKERAK ETA BALDINTZAK
11:20 - 11:50	Solasaldia Taldeka
11:50 - 12:10	Atsedena
12:10 - 12:40	Ponentzia: Egungo partaidetza aztergai, Zein ezaugarri ditu momentu honetan partaidetzak?
12:40 - 13:30	Talde hausnarketa
13:30 - 14:00	Goizeko saioaren ondorioak eta itxiera
14:00 - 15:30	Bazkaria, luntxa
15:30 - 15:45	Arratsaldeko programaren errepeaso
15:45 - 16:05	Ponentzia. AHAL izateko, baldintzak eta formulak. Partaidetza errazteko, bermatzeko baldintzak eta-formulen aukerak, arriskuak eta kontraesanak.
16:05 - 16:35	Mahai-ingurua: AHAL izateko, baldintzak eta formulak. Partaidetza errazteko, bermatzeko baldintzak eta-formulen aukerak, arriskuak eta kontraesanak
16:35 - 17:30	Solasaldi irekia
17:30 - 18:00	Ondorioen aurkezpena eta jardunaldiaren itxiera

Zuzendaritza



Olatz Dañobeitia Ceballos

Gipuzkoako Foru Aldundia

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2023-02-25 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa